

ESLEIPEN-IRAGARKIA

2019ko irailaren 11ko Gobernu Batzordearen akordioaren arabera, hona hemen deialdia EKIPAMENDU INFORMATIKOEN ETA ZENBAIT KOMUNIKAZIO-SISTEMAREN MANTENTZE-LANETARAKO zerbitzu-kontratua esleitzeko, prozedura ireki sinplifikatu bidez, ondoko datuak oinarri:

1. Erakunde esleitzailerak: datu orokorrak eta informazioa eskuratzeko datuak:

- a) Erakundea: **Alegria-Dulantziko Udala.**
- b) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:
 - 1. Tokia: **Alegria-Dulantziko udaletxea.**
 - 2. Helbidea: **Herriko plaza 1.**
 - 3. Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4. Telefono-zenbakia: **945-420027.**
 - 5. Telefax-zenbakia: **945-420394.**
 - 6. Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
 - 7. Kontratugilearen profilaren Interneteko helbidea: www.euskadi.eus eta www.alegria-dulantzi.eus
 - 8. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko epemuga: **eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 3 egun lehenago.**
- c) Espediente-zenbakia: **31/2019.**

2. Kontratuaren xedea:

- a) Mota: **zerbitzuak.**
- b) Xedearen deskribapena: **ekipamendu informatikoen eta zenbait komunikazio-sistemaren mantentze-lanak.**
- c) Gauzatzeko epea: **24 hilabete; beste 24 hilabetez luzatu ahalko da.**
- e) Luzapen-onarpena: **bai.**
- f) CPV (nomenklatura-erreferentzia): **50312005-5 – 50312300-8 - 50312600-01.**

3. Izapidetzea eta prozedura:

- a) Izapidetzea: **arrunta.**
- b) Prozedura: **irekia.**
- c) Esleipen-irizpideak: **zenbait esleipen-irizpide hartuko dira kontuan proposamenak balioesteko eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zehazteko.**

A. Zuzenean zenbatets daitezkeen irizpideak. Beheranzko ordenari jarraiki puntuatuko dira:

Prezioa: **60 puntu**, formula honen arabera:

X puntuazioa = (Prezio txikiena / X enpresaren prezioa) * Gehieneko puntuazioa

B. Balio-judizio baten mendeko irizpideak:

Hobekuntzak: 30 puntu, 2 puntu 300 euro bakoitzeko, esleitutako balioa alda dezaketen justifikatutako irizpide teknikoaren arabera balioetsiak. Hobekuntzak Udabatz-aretoan inprimagailu, ekipamendu informatiko eta grabazio-sistematan eta ez beste ezertan egitekoak izan behar dira.

SEN maila handia: maila handiko Segurtasun Eskema Nazionala Cloud Zerbitzuetarako eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako - IKT azpiegiturei begirako instalazio, eragiketa eta laguntza tekniko zerbitzuetarako: 5 puntu.

Etorkizuneko balizko beste esleipendun bati zerbitzua eta ezagutza eskualdatzeko plana: 5 puntu.

Esleipendunak trantsizioa onartu, eta lagundu egingo du. Hortaz, denbora-tarte bat aurreikusi beharko du enpresa esleipendun berriari ezagutza-transferentzia egiteko, berak kontratuaren xedea den zerbitzua emateari utziz gero. Horrez gain, enpresa horri beharrezkoa duen kontu orotan lagunduko dio, Alegria-Dulantziko Udalak jaso beharreko zerbitzua ordura arte jasotako bera izan dadin —baldintza-orri honetan xedatuta dago—. Epe hori hilabetekoa izango da, zerbitzua emateari uzten zaion unetik aurrera, hala kontratua bukatzen denean nola hura deuseztatzen denean.

Horrenbestez, enpresa lizitzaileek ondokoen gaineko deskribapen xehatua egin beharko dute beren eskaintzetan: batetik, Alegria-Dulantziko Udalaren esku jarriko dituzten bitartekoak (giza baliabideak, metodologikoak eta abarrak); bestetik, aipatu baliabideak zenbat denboraz eskainiko dituzten, zerbitzu bera emateko beste enpresa esleipendun bati eskualdatu behar izanez gero.

Zerbitzua emateko enpresa esleipenduna aldatzen bada, zerbitzuaren jarraipena bermatuta egongo da, bai eta enpresa biak aldi berean aritu behar badira ere.

4. Esleipen-aurrekontua:

Kontratuaren gehieneko prezioa: **55.000,32 euro**. BEZa, ehuneko 21: **11.550,07 euro, 4 urteengatik**.

5. Ezarri beharreko bermea:

Behin betikoa: **ehuneko 5**.

6. Kontratistaren baldintza zehatzak:

Enpresariaren kaudimena:

Enpresariaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa honela egiaztatu beharko da:

- a) Finantza-erakundearen adierazpen egokiak, edo, hala badagokio, arrisku profesionalengatik kalte-ordaineko aseguru bat dagoela ziurtatzeko egiaztagiria.
- b) Negozioen guztizkoaren gaineko aitortpena, eta, hala badagokio, kontratu honen xedeari dagozkien jardueren arloko negozioen guztizkoaren gainekoa, gehienez ere azken hiru ekitaldietakoa, eta kontuan izanik enpresaren eratze-data edo enpresariaren jardueren hasiera-data, betiere negozio-bolumen horren erreferentziak izanez gero.

Zerbitzu-kontratuetan, enpresariaren **kaudimen teknikoa** honela egiaztatu beharko da:

- a) Azken hiru urteetan eman edo egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, haien zenbatekoak, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, jasota. Egin edo emandako lan edo zerbitzuak egiaztatuko dira organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriaren bidez, hartzailea sektore publikoko erakundea izanez gero; subjektu pribatua baldin bada, berriz, hark emandako ziurtagiriaren bidez edo, halakorik izan ezean, enpresariaren adierazpenaren bitartez. Hala badagokio, agintaritza eskudunak zuzenean helaraziko dizkio ziurtagiriak kontratazio-organuari.
- b) Enpresaren urteko batez besteko langile-kopuruari eta azken hiru urteetako zuzendaritza-taldeko kideei buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiriekin batera.
- c) Enpresariaren eta enpresako zuzendaritza-taldeko kideen titulazio akademikoaren eta profesionalen egiaztagiria, eta, bereziki, kontratua egikaritzeaz arduratuko diren langileenak eta zerbitzua emango duten begiraleenak[Autor des1].

7. Eskaintzen edo parte hartzeko eskabideen aurkezpena:

- a) Aurkezteko epemuga: **hogei egun, iragarki hau kontratugilearen profilean argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera.**
- b) Euskarria: **papera.**
- c) Aurkezteko tokia:
 - 1. Bulegoa: **erregistro orokorra.**
 - 2. Helbidea: **Herriko plaza 1.**
 - 3. Udalerrria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4. Helbide elektronikoa: **aalegria.general@ayto.araba.eus**
- d) Lizitatzailleak eskaintza indarrean izan beharreko epea: **3 hilabete.**

8. Eskaintzen irekiera

- a) Deskribapena: **kontratazio-mahaia.**
- b) Helbidea: **Herriko plaza 1.**
- c) Udalerrria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
- d) Eguna eta ordua: **proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hirugarren egun baliioduna.**

9. Publizitate-gastuak:

Esleipendunaren kontura; 600 eurora bitarteko muga.

Alegria-Dulantzin, 2019ko urriaren 7an
ALKATEA

Izp.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria